

523/2024 EBAZPENA, UZTAILAREN 16KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ PARTZIALKI HUTSIK UZTEN DEN MAIATZAREN 29KO 398/2024 EBAZPENAREN DEIALDIA (ETA HORREN ZUZENKETA EGIN ZUEN EKAINAREN 21EKO 466/2024 EBAZPENA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN ARLO JURIDIKOKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUN BI LANPOSTU BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN, ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKOA.

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpenaren eta ekainaren 21eko 466/2024 Ebazpenean egindako zuzenketaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Arlo Juridikoko Arlo Korporatiboko Teknikari Arduradun lanpostu batzuk behin betiko barne-mugikortasun bidez betetzeko deialdia egin zen (2024ko ekainaren 5ean eta 21ean argitaratu ziren web-orrian, hurrenez hurren).

ZUZENDARITZA	ZUZENDARIORDETZA	ZERBITZUA	HE / DERRIGORTASUN-DATA	DESTINO KOP.
Giza Baliabideen Zuzendaritza	Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordetza	Ebaluazioa eta garapena	3. HE 2024-05-01	1

EBAZTEN DUT

Partzialki hutsik uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Arlo Juridikoko Arlo Korporatiboko Teknikari Arduradun lanpostu batzuk behin betiko barne-mugikortasun bidez betetzeko deialdia, izangairik ez dagoelako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 16a.



Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA